

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Rock&Ron.

Ze esatek.
CD-DVD. Oihuka.
Iraupena: 48'48".
14 euro.

Hunkitzeko eta hunkitua izateko zortea

AZKEN URTEOTAN sona handia hartu duen talde parrandero hau Trikizio, Skunk, Harlax, Nuke, The Txortains eta beste talde batzuetan aritutako lagunek osatutakoa da. Euskal Herriaren serioak garelako dioten arren, ska eta rocka nahastentzen duten taldeek jarraitzaile ugari izan ohi dute. Hala izan da iraganean eta halaxe da gaur egun ere. Ze Esatek taldea horren adibide garbia da. Erritmo biziko punk-popa oinarri, haizezko instrumentuek lagunduta eta egunerokota-

sunezko hitz garratz edo alaiek hauspotuta, kantu sorta freskoa batu dute lan honetan, tartean Azpeitiako KMK, 2010eko Ikasle Eguna eta Txori Barroteren alde idatzitako kantuak ere. Kantu itsaskorak eta biziak dira ia guztiak. CDarekin batera, Kubako biran bizitakoarekin egindako DVD xume bezain hunkigarria, biraren zenbait pasarte eta Kuba zatitxo bat ekarri dizkigute.

www.zeesatek.com

Ze esatek

«Musikatik bizitzea posible da, noski, musikaria ez bazara»

Zer dauka ska-rockak lehen eta orain hala erakartzeko? Zein da sekretua?

Musika estilo guztiek dute erakartzeko ahalmena eta denek dituzte aldekoak eta kontraokak. Gu dantzarako, parrandarako eta ondo pasatzeko abestiak egiten saiatzen gara, eta horretarako, akorde nagusietan eta erritmo azkarretan oinarritzen gara gehienbat. Hitzetan egunerokoari egiten diogu erreferentzia. Edozeinek presta dezake koktel hau, ez dugu esango kalimotxo asmatu dugunik!

“Lanetik etxera itzultzen naizenean ‘zer egin dezuz gaur’ galdetzen didatenean ez dut gezurrik esan behar”. Eta bada musikaz bizitzerik?

Jendea jipoitzen edo komisaldegietan torturatzen duten polizia horiei abesten diegu hori. Horiek ere guraso dira, senar, emazte, seme, alaba... Harrigarria da nola izan dezaketen kontzientzia hain lasai! Iñigo Cabacas edo Rosa Zarra hil zutenek, adi-



bidez, etxera iritsi eta bikotekideari zer esango zioten? Baina zuk esandakoari jarraituz, musikatik bizitzea posible da, noski, musikaria ez bazara! Gure kasuan ezinezkoa da, taldean bederatzi izanik.

“Aurpegiaren irria, bihotza gorria, badator musikaren iraultza berria”. Ezinbesteko osagaiak?

Ateratzen zaiguna egiten dugu, nahi duguna. Estereotipo gutxi betetzen ditugu eta harro gaude: ez gara

auzoko gaiztoenak, mozkorrenak, guapoenak, ezta militanteenak ere... Lehengo *pringauak* gara.

“Ezer ez da doakoa, larrosak arantzak dauzka”. Bide luzea egiteko?

Garbi dago baietz, luzea eta gogorra izan den moduan, oraindik ere aurrean dagoena hala izango da ziur. Baina baiko-

rrak gara, bai. Irribarre egin, irabaziko dugu eta!

“Katia”. Kuba poesia hutsa da? Zergatik?

Abestia kontzertuetan kubatarrei eskaintzeko idatzi genuen eta harre-
ra ezin-hobe izan zuen. Kuba poe-
sia hori baino gehiago
da, bihotza, duintasuna,
poza, eskuabaltasuna...
baina hara joan behar
da ezagutzeko. ■

